



□ 'Basarri'ren omenez sagardotegiz sagardotegi

'Egin' egunkariak Inazio Eizmendi 'Basarri'ri egingo dio omenaldi bihar. Goizeko 11etan bisita egingo diote bere etxera Andoni Egaña txapeldunak eta Bertsolarien Elkarteko lehendakaria den Imanol Lazkanok. Horren ondotik, Hernaniko Tilosetan bilduko da hainbat bertsolari, laurogei inguru, antolatzaileek bospasei laguneko taldetan banatuko dituztelarik, gero Hernani eta Astigarragako sagardotegietara joan daitezten. Hamabost sagardotegitara joango dira. Sagardotegietako bertso-bazkari hauetan parte hartu nahi dutenek, jakin bezate eguerdi aldera, Tilosen, salgai jarriko direla oraindik saldu ez diren sarrerak. Arratsaldeko 5,30ak aldera, berriro Hernanin bilduko dira bertsolariak. Gazteak ez ezik, edadeko bertsolariak ere azalduko dira. Argazkian, Erauskin, Txirrita eta Erauskin kupela baten ondoan.